

EDITORIALA eu-

452°F *Literaturaren teoria era Literatura konparatua aldizkariaren* bigarren alea da hemen aurkeztu duguna. Argitalpen honen atzean, erredakzio kontseilu berrituaren lana dago, eta baita proiektua babesten jarraitzen duen batzorde zientifikoarena ere. Gainera, Universitat Autònoma de Barcelona-ko Consell Social-ak, Universitat i Societat programaren bitartez, emandako diru-laguntza aipatu behar dugu, eta baita unibertsitateko ETC-ak emandakoa ere.

Ale honetako monografikoaren oinarrian, ikasketa postkolonialek eta subalternitate ikasketek sortu duten interesa dago. Literatura konparatuaren baitan sortutako eztabaida hori hartu dugu aintzat, literatura eta nazioak lotzen dituen identifikazioa gainditzearen alde egiten duela kontuan izanda. Diziplina horiek literaturaren teoriari eta corpus teorikoari egin dizkieten ekarpenak aztertu nahi izan ditugu, eta baita gertaera literarioa hurreratzeko erabiltzen dituzten estrategiak ere. Geure buruari galdegin diogu kritika geldirik ote dagoen nolabait, testuetara hurbiltzean, hau da, hausnarketa teorikoak ez ote dituen literatur proposamen berriak bere egin edota praktikan frogatzen ote den proposamen horien emankortasuna. Nazio identitateen eta literaturaren arteko harremanaren problematizazioa hartu genuen ardatz, bi bidetatik. Alde batetik, nazio identitateen inguruan galderak eta zalantzak planteatzen dituzten literatur testuen azterketa iradoki genuen. Horretarako, ez ditugu literaturari esleitzen zaizkion nazionalitateen inguruan nagusitu diren kontzeptualizazioak erabili nahi. Haustura eta zalantza dakarten ikuspuntuak hartu ditugu aintzat, baina baita tradizioari atxikitakoak ere, originalak eta ongi oinarritutakoak izatekotan.

Literatura nazionala, aldaezina dirudien sintagma hori, zalantzan jartzen duten diziplina-hausnarketa berritzaileak bilatu nahi izan ditugu, harreman horretan naturala dena desegiten dutenak, akademiaren arlo ezberdinetan egiten ari diren bezala. Beraz, nazio identitatearen eta literatura ikertzen duten diziplinen arteko harremanaren inguruan hausnartzeko erabiliko ditugun kontzeptuen artean izango ditugu dekonstrukzioa (Derrida), postnazionalitatea (Gabilondo, Castany Prado, Resina), postkolonialitatea (Bhabha, Said), inperioa eta globalizazioa (Negri, Hart), nomadismoa (Gnisci) eta subalternitatea (Spivak), edota identitatea errizoma gisa (Deleuze-Guattari). Garaikidetzat har ditzakegun hurbilketak hartu ditugu aintzat; literaturaren eta bere ikerketaren egungo egoera ulertzea dute helburu, eta gainera, leku

ezberdinetan, gaia zertan den jakinda egindako hausnarketak dira.

Ale honetako monografikoak lau kolaborazio ditu. "Apología de la literatura inmigrante" artikuluan, Paula Meissek migrazio-bidaien kontakizunak aztertu ditu, zalantzan jarriaz "literatura nazionala" kontzeptua eta baita nazio identitatea ere, literatura konparatuaren ikuspegitik. Elda eta Chipo Hungweren "Interrogating Notions of Nationhood, Nation and Globalisation in Postcolonial Africa" artikulua lau nobelen irakurketa da eta oso modu interesgarrian adierazten du pentsamendu postkolonialean sortutako kritikatik pauso bat haratago doan kritikarako trantsizioa, "nazioa", "naziotasuna", "etniatasuna" edota "nazionalismoa" bezalako kontzeptuak aztertuta. Hirugarren artikulua, Aino Rinhaug-en "*My Name Is Legion: Literature and Genealogy in António Lobo Antunes*", Foucaulten eta Deleuze-ren proposamen teorikoetatik abiatzen da. Helburua botere harremanak ulertzea da; nazioaren diskurtsoak eta nazioa diskurtso gisa kontuan hartuta. Monografikoko azken artikuluan, "Re-enacting the Nation: Unsettling Narratives in the El Güegüense Theatre of Nicaragua", Alberto Guevarak alderatu egin ditu antzezlan baten irakurketa kritikoa eta jaialdietako eszenaratze ezberdinak. Proposamen honen arabera, antzerkian, mestizajetik, zalantzan jartzen da identitateen eta kulturen homogeneizazioa. Artikulu horietan guztietan, presente daude literaturaren teoria eta literatura konparatua, eta baita talde nortasunak egungo mapa globalean ezarritako inposizio geopolitikoetatik askatzen dituen pentsamoldea ere. Bide egiten diote beraz, izate nazionalaren ideia ontologikoa apurtzen duten pentsaera berriei.

Miszelanea sailak lau artikulua ditu oraingoan. "Gênero comercial em evidência: O filme Cidade de Deus manipula a realidade?" delakoan, Raquel de Medeiros Marcatok indarkeria errealista irudikatzeko zinema komertzialak darabiltzan estereotipoak aztertzen ditu. Владимир Луарсабишвили-en "к переводу стихотворения г. Арести 'Nire aitaren etxea defendatuko dut'" artikulua itzulpengintza poetikoaren arazoetako batzuk aztertzen ditu harreman esturik ez duten bi hizkuntzen artean. Euskarazko bertsioa kolaborazio berezia da, itzultzaileak berak bere lana azalduaz egina. Leticia Pérezek, "The Surrealist Collection of Objects" artikuluan, zenbait artista surrealisten bildumazaletasuna aztertzen du, gizartearen materialismoaren aurrean hartutako jarrera gisa. Azkenik, "L'Espagne sous le regard d'une Française: la *Relation du voyage d'Espagne* (1691) de Madame d'Aulnoy" artikuluan, Melissa Guenther-ek emakume espainiarren eta frantziarren irudikapenak alderatu ditu, XVII. mendeko bidaiari baten ikuspuntutik.

Behar bada, 452°F aldizkariaren bigarren ale honetako monografikoaren alderdirik interesgarriena da jarraipena baino haustura proposatzen duela. Irakurri eta interpretatzeko gonbidapena egin nahi genioke irakurleari, kritikoa izan dadila, epel gera ez dadila. Bigarren ale honetan ikuspuntu berritzaileak biltzea izan da gure xedea, aldizkariaren beraren helburuak laburbilduz, hedatzeko eta gaurkotzeko tresna dela uste baitugu: gaur egindako lana eskaintzen dugu, gaur ulertzeko literaturaren inguruan gertatzen ari dena.